

**2025/04/01**

## **GASTEIZKO TXOSNAK PRENTSAURREKOA - GTX BANDA LEHIAKETA**

Egun on eta eskerrik asko Gasteizko Txosnek 2025 urtean eskainiko duten lehenengo agerraldi honetara hurbiltzeagatik.

Gure programazioan ezinbestekoa bilakatu den ekitaldiaren edizio berria aurkeztu nahi dizuegu gaur: **Gasteizko Txosnetako Banda Lehiaketa**.

Helburua berriro ere, beste batzuen artean, ezagunak ez diren taldeei oholtzaren gainean aukera bat ematea izango da. Horretarako, edozein taldek hartu dezake parte txapelketa honetan, gaur bertan irekiko den eta **maiatzaren 2an arratsaldeko 15:00etara** arte luzatuko den izen ematearen bitartez.

Apuntatzeko modua erraz-erraza da: **[www.gasteizkotxosnak.eus](http://www.gasteizkotxosnak.eus)** webgunean sartu eta galdetegi bat bete beharko da: taldekideen datuak txertatzeaz gain, minimo hiru abesti - hauen artean bat gutxienez euskaraz - eta gehienez bost - hauen artean bi gutxienez euskaraz - igo beharko dira. Horrez gain, argazkiak, bideoak edo ta taldeen sare sozialen berri emateko aukera izango dute.

Behin talde guztiek izena emanda, Gasteizko Txosnak 8 talde sailkatuak iragarriko dituzte eta **maiatzaren 5etik 15era** bozkaketa fasea zabalduko da. Hauetako lau talde finalera igaroko dira.

Lau horietatik ikuslegoak bat aukeratuko du. Beste hirurak zeintzuk izango diren Gasteizko Txosnetako epaimahaiak erabakiko du. Lau horietatik bat gutxienez Arabakoa izan beharko da, eta lau horietatik ere, bat gutxienez emakumeen presentzia izan beharko du.

Lau talde finalistek zuzeneko kontzertua eskainiko dute **Maiatzaren 22an** Jimmy Jazz Gasteiz aretoan. Aurten, lehiaketan bi sari mota egongo dira, GTX saria eta GAZTE saria. GTX saria 500 euroko jasoko ditu ordea, GAZTE saria 200 euro. Irabazten duten taldeek Gasteizko txosnetan aritzeko aukera edukiko dute.

Banda Lehiaketa bi hilabeteetan zehar luzatuko da, eta 2025eko Gasteizko Txosnen lehen ekimena izango da. Bitartean, kaleetan edo txosnetako sare sozialetan ikusiko dugu elkar.

Eskerrik asko!

**GASTEIZKO TXOSNAK**

**01/04/2025**

## **RUEDA DE PRENSA GASTEIZKO TXOSNAK - GTX BANDA LEHIAKETA**

Egun on y muchas gracias a todas las que os habéis acercado a la primera rueda de prensa de Gasteizko Txosnak de este año 2025.

Hoy os queremos presentar la nueva edición de lo que es ya parte imprescindible en nuestra programación: **Gasteizko Txosnetako Banda Lehiaketa**.

Una vez más el objetivo, entre otros, será el de dar una opción encima del escenario a grupos no tan conocidos. Para ello, cualquier grupo podrá participar en este concurso apuntándose en el formulario que se pondrá en marcha hoy mismo y que permanecerá abierto hasta el próximo **2 de mayo a las 15:00** horas.

La fórmula para apuntarse es la siguiente: hay que meterse en la pagina web **[www.gasteizkotxosnak.eus](http://www.gasteizkotxosnak.eus)** y rellenar un formulario con los datos del grupo y subiendo un mínimo de tres canciones - una de ellas en euskera - y un máximo de cinco canciones - dos de ellas en euskera. Además de ello, las bandas tienen la posibilidad de subir fotos, videos o dar a conocer sus redes sociales.

Una vez que todas las bandas estén apuntadas, Gasteizko Txosnak anunciará cuáles son los 8 grupos clasificados y del **5 al 15 de mayo** comenzará la fase de los votos, de la cual cuatro salen elegidos para pasar a la final.

Uno de esos cuatro lo elegirá el público mediante votación. Los otros tres grupos los elegirá un jurado de Gasteizko Txosnak siguiendo unas cuantas normas: de los cuatro, por lo menos una banda debe de ser de Araba, y, por lo menos, una banda debe de tener presencia de mujeres en ella.

Los cuatro grupos finalistas ofrecerán un concierto en directo en la sala Jimmy Jazz Gasteiz el **22 de mayo**. Este año, habrá dos tipos de premios, el GTX saria y el GAZTE saria. El premio GTX recibirá 500 euros, mientras que el premio GAZTE recibirá 200 euros. Los grupos que ganen podrán tocar en Gasteizko Txosnak.

Esta Banda Lehiaketa se alargará durante dos meses y será la primera iniciativa de Gasteizko Txosnak de este año 2025. Mientras tanto, nos vemos en las calles o en las redes sociales de las txosnas.

Eskerrik asko!

**GASTEIZKO TXOSNAK**